



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Ekainak 28, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean, aniztasunetik eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, kolektibo horren eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatuz. Jardunaldi hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogoraraztea ere bada.

Funtsezkoa da injustiziaren aurrean ahotsa altxatzea eta gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta aniztasuna errespetatzen duena eraikitzen laguntzea. Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik egin ahal izango dugu aurrera aldaketa erreal, sakon eta iraunkor baterantz, norbanakoaren konpromisotik hasi eta politika publikoetarako.

Badakigu azken urteotan sexu- eta genero-aniztasunaren onarpena handitu egin dela, eta aurrerapen hori hainbat pertsona, elkarte, erakunde, kolektibo eta erakunderen etengabeko lan konprometituari esker lortu dela, hainbat esparrutatik kontzientziak ikusarazten, sentsibilizatzen eta eraldatzen lagundu baitute. Prozesu horretan, euskal gizarteak erakutsi du gai dela aurrera egiteko, oztopoak hausteko eta guztiontzako askatasun-eremuak irekitzeko.

Gaur egun harrotasunez esan dezakegu gizarte bat eraikitzen laguntzen ari garela, non pertsona bakoitza izan daitekeen eta bizi daitekeen armairurik eta loturarik gabe, aurreiritzirik, estigmatik eta beldurrik gabe. Baina badakigu oraindik bide luzea dagoela egiteko. Babes-keinu bakoitza, ikusgarritasun-ekintza bakoitza, LGTBIQ+ eskubideen aldeko hitz bakoitza funtsezko urratsa da lortutako lorpenak sendotzeko eta aurrera egiten jarraitzeko.

Ekainaren 28a ez da oroitzapenezko data bat bakarrik, ekintzarako premiazko deia baizik. Ermuko Udaletik giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta herritar guztiak ausardiaz jokatzera, gorroto diskurtsoen aurrean isilik ez egotera eta edozein indarkeria, diskriminazio edo eskubide-urraketa salatzen animatzen ditugu, gure udalerriko hainbat kolektibok duela gutxi egin zuten bezala, agertutako pintada homofobo, transfobo eta matxisten aurrean. Berdintasuna eta askatasuna ezin dira negoziatu.

Horregatik, Ermuko Udalak indarkeria matxistarik gabeko bizitzak nahi ditu eta sentsibilizazioan, prebentzioan eta formazioan aurrerapausoak ematen jarraitzea, 2025ean LGTBIQ+ pertsonen errealitatearen inguruko herri mailako diagnostiko bat abian jarritz, Ermuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean jasotzen den bezala.

Gainera, herritar guztiak sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldietara batzea gonbidatzen ditugu, LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsa eta sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko borroka euskal gizartearen identifikazio-elementu izan daitezen.

Azkenik, gogorazi nahi dugu LGTBIQ+ eskubideen aldeko borroka herritar guztien erantzukizuna dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, elkarrekin eraikiz eta lan eginez, etorkizunean pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi gaitezen.